



Andoaingo
Udala

**Osasun arrazoiengatik funtzionarioak
lanpostuei atxikitzeke araudi
erregulatzailea**

**Normativa reguladora de la adscripción
de funcionarios/as a puestos de
trabajo por razones de salud**

1. artikulua.

Araudi honen helburua da segurtasun eta osasun arrazoiengatik funtzionarioak beste lanpostu batzuei atxikitzeke arauak ematea, eta helburu hori EUFALEBAko Laugarren Xedapen Gehigarriko 2. puntuak erakunde bakoitzari ematen dion ahalmenaren eta eginbeharraren arabera gauzaten da, Toki Araubidearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/86 EDLko 169.1.d art.an, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 69.2 artikuluko g) letran eta martxoaren 24ko EDLak onarturiko Langileen Estatutuko 4.1 art.ko d) letran aurreikusitakoaren arabera, eta hori guztia laneko segurtasun eta osasun gaietan babes eraginkor bat izateko eskubideari loturik dago, Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko 3, 15.1.d) eta 25 artikuluetan eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Erret Dekretuak onarturiko Prebentzio Zerbitzuen Arautegian adierazitakoaren arabera.

2. artikulua.- Kontzeptua.

1.- Funtzionarioak segurtasun eta osasun arrazioak direla eta beste lanpostu bati atxikitzea jarduneko zerbitzuarekin pareka daiteke, eta Andoaingo Udaleko eta bere erakunde publikoetako funtzionarioei aplika dakieke, baldin eta beren lanpostuan jarduteko ezgaitasun psikiko eta/edo fisikoa baldin badute, lanpostu horretan egin behar dituzten lanak behar bezala egiteko edo bertako zereginak edo eginkizunak aurrera eramateko gaitasuna izan ez eta behar adinako errendimendua ez dutenean, baina betiere hain neketsua eta gaitza ez den beste lanpostu batean aritzeko beharrezko gaitasunaren jabe badira.

2.- Adierazitako arrazioen arabera atxikitzeke modukoak diren lanpostuak Administrazio Orokorraren Eskalako Menpekoen Azpieskalako langileentzat erreserbatutakoak dira.

Lanpostuko zereginak neketsuagoak eta gaitzagoak izateagatik ezaugarri fisiko bereziak izatea eskatzen duten lanpostuetan diharduten funtzionarioak bakarrik izendatuko dira lanpostu horietarako, hau da, Administrazio Bereziko Zerbitzu Berezien Azpieskalan, Lanbideetako Pertsonalari eta Haur-Eskolari dagozkion lanpostuetan ari diren langileak.

Gai horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziarri buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean aurreikusitakoaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia kidegoetako funtzionarioak bigarren jarduerako administrazio-egoerara igarotzeari buruzko zenbait gai garatzen dituen Eusko Jaurlaritzaren

Artículo 1.

La presente normativa tiene por objeto regular la adscripción de funcionarios/as a otros puestos de trabajo por razones de seguridad y salud, y emana de la facultad-deber que confiere a cada institución, la Disposición Adicional Cuarta, punto 2º, del ARCEPAFE y en base a lo previsto en el art. 169.1.d) del RDL 781/86, de 18 de abril por el que se aprueba el Texto Refundido de Régimen Local, art. 69.2 letra g) de la Ley de la Función Pública Vasca y art. 4.1 letra d) del Estatuto de los Trabajadores aprobado por RDL 1/95, de 24 de Marzo, ligado al derecho a una protección eficaz en materia de seguridad y salud laboral, conforme a los artículos 3, 15.1.d) y 25 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre de Prevención de Riesgos Laborales y Reglamento de los Servicios de Prevención, aprobado por Real Decreto 39/1997, de 17 de enero.

Artículo.- 2. Concepto.

1.- La adscripción a otro puesto de trabajo por razones de seguridad y salud no constituye una situación distinta al servicio activo y es aplicable al personal funcionario del Ayuntamiento de Andoain y sus organismos públicos que padezca una incapacidad psíquica y/o física para el desempeño de su puesto de trabajo manifestada por rendimiento insuficiente que impida realizar con eficacia las funciones atribuidas al mismo, o bien tenga disminuida su capacidad para misiones o funciones del puesto de trabajo que ocupa, pero conserve la capacidad requerida para las tareas de otro puesto de menor esfuerzo y penosidad.

2.- Los puestos de trabajo susceptibles de adscripción, por los motivos expuestos, serán exclusivamente aquellos reservados a personal de la Escala de Administración General, Subescala Subalternos.

Y exclusivamente se asignarán a tales puestos aquellos funcionarios/as que ocupen puestos de trabajo que requieran unas condiciones físicas específicas por su mayor esfuerzo y penosidad, es decir al personal que ocupe puestos de trabajo pertenecientes a la Subescala de Servicios Especiales de Administración Especial: Personal de Oficios y Guardería infantil.

El personal de la Policía Local en tal materia se regirá por lo previsto en la Ley 4/1992, de 17 de julio de la Policía del País Vasco y por el Decreto 7/1998, de 27 de enero del Gobierno Vasco por el que se desarrollan determinados aspectos relativos al pase a la situación administrativa de segunda actividad de los



Andoingo Udala

urtarrilaren 27ko 7/1998 Dekretuak esandakori jarraituz arautuko da Udaltzaintzako pertsonala.

3. artikulua.- Helburua.

Udal langileak atxikitzeak xede edo helburu hau du: langile horien ahalmen profesionala Andoingo Udaleko eta bere erakunde publikoetako plantillako lanpostuen ezaugarri funtzionaltara egokitzea, bertako giza baliabideak optimizatzeko eta, era horretan, herritar guztiei zerbitzu publiko eraginkorrago bat eskaintzeko eta baja medikoen eta kontratazio berriek sortzen duten gastua ere murriztu ahal izateko.

4. artikulua.- Betebeharrak.

1.- Lanpostu horiei atxikitako beharreko funtzionarioek ondoko baldintzak bete beharko dituzte :

- a).- Jarduneko zerbitzuan aritzea.
- b).- Plantilan izendatua daukaten lanpostuko zereginak behar bezala betetzea galarazten dien ezintasun-egoeraren bat izatea -arautegi honen ondorioetarako-.
- c).- Esleitu nahi zaien lanpostu hutsa betetzeko beharrezkoa den titulazioa izatea eta gainerako baldintzak betetzea, lanpostu horren zereginak betetzeko ahalmen psikiko eta fisiko nahikoa izanik.
- d).- Administrazio Orokorreko Eskalan, Menpekoen Azpieskalan, lanpostu huts bat egotea.

2.- Atxiki beharreko lanpostuak Lanpostuen Zerrendan derrigortasun data duen hizkuntz eskakizunen bat esleiturik baldin badu, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, hizkuntz eskakizuna benetan bete beharrezkoa den ala ez zehazteko. Horretarako, txosten bat egiteko eskatuko zaio Udaleko Euskara Zerbitzuari, eta, lanpostuko zereginak betetzen dituen zerbitzuaren erabiltzaileak eta onuradunak organo erabakitzaileetan egituraturik baldin badaude, erakundearen zuzendaritza-organuari ere bai (ikastetxeak, etab.)

5. artikulua.- Jardunbidea.

Segurtasun eta osasun arrazoiak direla-eta beste lanpostu bati atxikitzeak jardunbidea honelakoa izango da:

1. *Hasiera.* Jardunbidea ofizioz edo funtzionarioak/interesatuak hala eskatuta hasi ahal izango da, eta horretarako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 68. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako izapideak bete beharko dira (Herri Administrazioen Araubide

funcionarios de los cuerpos de la Policía del País Vasco.

Artículo 3.- Finalidad.

El objeto o finalidad de tales adscripciones del personal municipal es adecuar las capacidades profesionales del mismo a las características funcionales de los puestos de trabajo referidos de la plantilla del Ayuntamiento de Andoain y sus organismos públicos, todo ello en aras a obtener una optimización de los recursos humanos que se traduzca en una mejora y mayor eficacia del servicio público a los ciudadanos y ciudadanas, así como un ahorro en el gasto al reducir las bajas médicas y necesidad de nuevas contrataciones.

Artículo 4.- Requisitos.

1.- Podrán acceder a tales adscripciones los/as funcionarios/as:

- a).- Que se encuentre en situación de servicio activo.
- b).- Que sea declarado en situación de incapacidad -a los efectos de la presente normativa- que le impida desempeñar con eficacia las funciones del puesto de trabajo que tenga asignado en la plantilla.
- c).- Que tenga la titulación y demás requisitos así como la suficiente capacidad psíquica y física para desempeñar las funciones del puesto de trabajo vacante que se le pretende asignar.
- d).- Que exista plaza vacante en la Escala de Administración General, Subescala Subalternos.

2.- En el caso de que el puesto de trabajo de adscripción tenga asignada en la Relación de Puestos de Trabajo la preceptividad de un perfil lingüístico, se estudiará caso por caso la necesidad de su cumplimiento efectivo, para lo cual se solicitará al Servicio de Euskera del Ayuntamiento un informe al respecto así como al órgano rector de la institución en el caso de que los usuarios y beneficiarios del servicio donde desarrolle sus funciones el citado puesto estén estructurados en órganos decisivos (centros públicos de enseñanza, etc.).

Artículo 5.- Procedimiento.

La adscripción a un nuevo puesto de trabajo, por motivos de seguridad y salud, se llevará a cabo conforme al siguiente procedimiento:

1. *Iniciación.* El procedimiento podrá iniciarse de oficio o a solicitud del/de la funcionario/a interesado/a siguiendo los trámites establecidos en los artículos 68 y ss. de la Ley 30/1992, de 26 noviembre(LRJ-PAC) en el modelo normalizado



Andoingo Udala

Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), Udalak emango duen eredu normalizatua erabiliz. Nolanahi ere, eskatzailea betetzen ari den lanpostuaren taldea, eskala, azpieskala eta klasea adierazi behar dira eskaeran, eta lanpostuaren zereginak behar bezala betetzea galarazten dion ustezko ezintasun psikiko edo fisikoa egiaztatzeko dauzkan agiri guztiak aurkeztu ahal izango ditu.

2. *Medikuen Epaimahaia.* Ezintasunaren nondik norakoak hiru medikuz osatutako Epaimahai batek ebaluatuko ditu. *Mediku* horiek beren irizpena eman ahal izateko alde zuzenetik bidezko jotzen dituzten probak egingo dizkiete langileei. Alkatetzak edo horren ordezkari organoak medikuen irizpen lotesleari men egin behar die, lanpostu berri bati atxiki behar den ala ez onartzeko.

Administrazioak izendatuko ditu epaimahai ebaluatzaileko hiru kideak. Horietako bat entitate lokalak berak proposatuko du, bestea interesatuak, eta, hirugarrena, berriz, Andoingo Udalak eta bere erakunde publikoek hitzartutako Lan Istripu eta Gaixotasunen Mutuak.

3. *Medikuen Epaimahaiaren irizpena.* Medikuen Epaimahaiak egiten duen ebaluazioa irizpen batean jasoko da. *Irizpen* horrek zehatz-mehatz adierazi beharko du zein den langilearen ezintasuna eta zein diren horren ondorioz bere lanpostuan behar bezala egin ezin dituen zereginak. Azkenean, ondorioa ezagutaraziko du, une horretara arte betetzen ari zen lanpostuan aritzeko gai den ala ez erabakiz.

Bestalde, langileak bere ezintasun psikiko edo fisikoa mailaren arabera zein lanpostu huts bete ahal izango lukeen ere adierazi beharko da irizpen horretan. Horretarako, Udalak alde zuzenetik hutsik dauden lanpostuen zerrenda eskuratuko die medikuei.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda ezintasunaren inguruko irizpena eman zuzenetik jarriko da Medikuen Epaimahaiaren esku, epaimahaiak berak eskatuta. Zerrenda horretan interesatuaren talde bereko edo beheagoko lanpostu huts guztiek agertu behar dute.

Izendatzeko modua: atxikipen berria Gobernu Batzordeak egingo du, Medikuen Epaimahaiaren txostena eta Euskara Zerbitzuaren txostena oinarritzat harturik, Pertsonaleko Batzordearen irizpena

que facilitará el Ayuntamiento. En todo caso, deberá hacerse constar en la solicitud el grupo, escala, subescala y clase del puesto de trabajo que viene ocupando el solicitante, y podrá adjuntarse toda la documentación de que disponga acreditando la presunta incapacidad psíquica o física que le impide desempeñar eficazmente las funciones de su puesto de trabajo.

2. *Tribunal Médico.* La evaluación de la incapacidad *corresponderá* a un Tribunal Médico compuesto por tres facultativos cuyo dictamen, previa práctica de las pruebas que considere necesarias, vinculará a la Alcaldía u órgano en quien delegue, para aprobar la adscripción a un nuevo puesto de trabajo.

Los tres miembros del tribunal evaluador serán designados por la Administración, uno lo será a propuesta de la propia entidad local, otro a propuesta de la parte interesada y un tercero a propuesta de la Mutua de Accidentes y Enfermedades Profesionales concertada por el Ayuntamiento de Andoain.

3. *Dictamen del Tribunal Médico.* La evaluación que realice el Tribunal Médico se recogerá en un dictamen que deberá expresar con concreción la incapacidad que padece el empleado o empleada y las funciones de su puesto de trabajo que no puede desempeñar con eficacia a consecuencia de aquélla, concluyéndose finalmente si es capaz o no para desempeñar el puesto de trabajo que venía ocupando hasta el momento.

Asimismo, deberá expresarse en el dictamen qué puestos de trabajo, entre la relación de puestos de trabajo vacantes proporcionada previamente por el Ayuntamiento, pueden ser desempeñados por el interesado/a o interesada atendiendo al estado de su capacidad psíquica y física.

La relación de puestos de trabajo vacantes disponibles será puesta a disposición del Tribunal Médico a petición de éste con anterioridad a la emisión del dictamen relativo a la incapacidad y deberá contener la totalidad de los puestos vacantes disponibles correspondientes al mismo grupo o inferior.

Sistema de asignación: La nueva adscripción se efectuará por la Comisión de Gobierno en base al informe del Tribunal Médico, al informe del Servicio de Euskera, y previo dictamen de la



Andoingo Udala

eta, hala behar bada, Segurtasun eta Osasun Batzordearen txostena alde aurretik direla.

Pertsona batek baino gehiagok lanpostu bera eskuratu nahi baldin badute, prestakuntzaren, esperientziaren eta antzinatasunaren inguruko irizpide objektiboak kontuan harturik egingo da izendapena.

- **Prestakuntza:**
Izendatu beharreko lanpostuetako zereginekin zuzeneko lotura duten gaitan prestakuntza berezia izatea baloratuko da. Gehienez 5 puntu.
- **Esperientzia:**
Izendatu beharreko lanpostuetako zereginekin zuzeneko lotura duten gaitan esperientzia profesionala izatea baloratuko da. Gehienez 10 puntu.
- **Antzinatasuna:**
Administrazio Publikoaren zerbitzuan duen antzinatasuna ere baloratuko da: 2 puntu, jabetzako zerbitzuan egindako urte bakoitzeko. Gehienez 30 puntu.

6. artikulua.- Bigarren jarduerako lanpostua berrikustea.

1. Espedientea edozein unetan berrikusi ahal izango da, bai ofizioz eta bai interesatuak eskatuta, baldin eta prozesuaren hasieran sumatutako ezintasuna larritu edo arindu bada edo hasierako diagnostikoa okerra bazen. Kasu horietan behar-beharrezkoa da Medikuen Epaimahaiak beste irizpen bat ematea.
2. Atxikipena eragin zuen arrazoia desagertzen bada, funtzionarioak bere jatorrizko lanpostura itzultzeko eskatu ahal izango du. Lanpostua hartuta badago edo desagertu bada, lehenago betetzen zuen lanpostuaren antzeko ezaugarri, zeregin eta lansariko beste lanpostu batean sartu ahal izango da.

7. artikulua.- Atxiki berria den lanpostuaren ezaugarriak.

1. Hasieran funtzionarioa behin-behinekoz atxikiko zaio lanpostuari. Dena dela, izendapena egin eta hiru hilabete igaro ondoren Medikuen Epaimahaiak lanpostu berrian aritzeko ezintasunean oinarrituz kontrako txostenik egin ez badu, atxikipena behin betikoa izango da.
2. Lanpostuen zerrendan ez da atxikipen berriko lanpostuei buruzko inolako oharrik agertuko, atxikipen hori segurtasun eta osasunaren inguruko arrazoi pertsonalei baitagokie soil-soilik.

Comisión Informativa de Personal e informe en su caso del Comité de Seguridad y Salud.

En el supuesto de que existan varias personas afectadas e interesadas en un mismo puesto la adscripción se efectuará en base a los criterios objetivos relacionados con la, formación, experiencia y antigüedad.

- **Formación:**
Se valorará la formación específica en materias relacionadas directamente con las funciones de los puestos de trabajo de destino. Hasta un máximo de 5 puntos.
- **Experiencia:**
Se valorará la experiencia profesional de hecho en materias relacionadas directamente con las funciones de los puestos de trabajo de destino: Hasta un máximo de 10 puntos.
- **Antigüedad:**
Se valorará la antigüedad al servicio de la Administración Pública: 2 puntos por año de servicio efectivo en propiedad, hasta un máximo de 30.

Artículo 6. Revisión de la plaza de segunda actividad.

1. El expediente podrá ser objeto de revisión -de oficio o a solicitud del interesado/a- en cualquier momento por concurrir una agravación o mejoría de la incapacidad inicialmente detectada o por error en el diagnóstico inicial. En estos casos será imprescindible un nuevo dictamen por parte del Tribunal Médico.
2. En caso de que desapareciese la causa que determinó la la adscripción, el/la funcionario/a tendrá derecho a solicitar el reingreso a su puesto de origen. Si dicho puesto se hallara ocupado o hubiera sido suprimido, podrá reingresar en un puesto de similares características, funciones y retribuciones al que ocupaba con anterioridad.

Artículo 7.- Características de la plaza de nueva adscripción.

1. Inicialmente la adscripción al puesto de trabajo será de carácter provisional. No obstante, la adscripción devendrá definitiva en el plazo de tres meses desde la fecha de nombramiento sin que el Tribunal Médico emita informe desfavorable en base a incapacidad para desempeñar el nuevo puesto.
2. En la Relación de puestos de trabajo no figurará anotación alguna en relación con los puestos de trabajo de nueva adscripción, al estar ligada la adscripción exclusivamente a razones personales



Andoingo Udala

3. Lanpostu berri bati atxikitzeak lanpostu horri berez dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak hartzea dakar berekin. Nolanahi ere, eta atxiki beharreko lanpostuaren ordainsari-maila (Eufaleba) edozein delarik ere, lehenago legez hartua zeukan lanpostuaren ordainsari-maila mantenduko du baldin eta azkeneko hau hura baino handiago bada, eta horretarako osagarri pertsonal iragankor bat (OPI) emango zaio. Hori guztia Eufaleba-ko 81. artikuluan eta Langileen Estatutuko 39. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, bertan adierazten baita mugigarritasun pertsonala langileen duintasuna errespetatuz eta haren prestakuntza eta promozio profesionalari kalte egin gabe gauzatuko dela.

Xedapen Gehigarri Bakarra.

Araudi hau behin-behinekoa izango da harik eta funtzionarioentzako "2. jarduera" modu orokorrean arautzen den arte.

Azken Xedapena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 art. an aurreikusitakoaren arabera jarriko da indarrean araudi hau.

de seguridad y salud.

3. La adscripción a un nuevo puesto supone la adquisición de todos los derechos y deberes inherentes al puesto que se ocupe. En todo caso, y al margen del nivel retributivo (Arcepafe) del puesto de destino, se mantendrá el nivel retributivo del puesto que legalmente ocupaba anteriormente de ser éste superior a aquél, mediante un complemento personal transitorio (CPT). Todo ello teniendo como referencia lo establecido en el art. 81 del Arcepafe y en art. 39 del Estatuto de los Trabajadores que señala que la movilidad funcional se efectuará sin menoscabo de la dignidad del trabajador y sin perjuicio de su formación y promoción profesional.

Disposición Adicional Única.

La presente normativa tendrá carácter transitorio en tanto en cuanto se regule para los funcionarios con carácter general la "2ª actividad".

Disposición Final.

La presente normativa entrará en vigor conforme a lo previsto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril reguladora de las Bases de Régimen Local.